BIZITEGI ERAIKINA — HONDARRIBIA 7

D MAILA



Egilea eta data: Jose Maria Mujica; 1888

Deskribapena.
Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina, lau goi oin eta teilatupeko oin bat, mantsardan, dituena. Harlanduzko fatxada, zurezko begiratokia duena erdialdeko baoan. Behe oineko baoak nabarmentzen dira, dekoratuta dauden puntu erdiko arkuekin erematuta daude (proiektukoez zertxobait desberdin). Proiektu komuna Hondarribia 9rekin.

Babes erregimena.

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: 5. goi oina, mantsardatua.
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; begiratokia.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.